Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rikardo Salaberria Galarraga Tximi

Lezo, Gipuzkoa (1940)



Aurkibidea

Biografia



Lezoko Kale Nagusian jaio zen. Ama oiartzuarra eta aita Errenteria-Oreretakoa zituen eta hamar senidetan zaharrena da bera. Ama oso gazterik erreumak jota gaixotu eta izeba bat joan zitzaien etxera bizitzera hainbeste umerekin laguntzeko. Fraideetan ikasi zuen eta bulegoko lanetan hasteko esan zioten, baina berari ez zitzaion lan hori batere gustatzen eta, gerora, anaiarekin batera argiketari enpresa bat ireki zuen. Errenteriako Maria Pilar Etxaberekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

LEZ-062

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Odriozola Zugarramurdi, Irati
- **Data**: 2012-05-23
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Txerria hiltzeko prozesua

- **Erref**: LEZ-062/003
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:04:28. **Bukatu**: 00:06:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
1940an jaioa izaki, gerra ostea ezagutu zuen. Urtero, txerri bat hiltzen zuten, eta harekin moldatzen ziren gose handirik ez pasatzeko. Txerria ekartzen zutenetik hiltzen zuten arteko prozesua nolakoa izaten zen azaltzen du. Txerri-munak banatzen zituzten.

2. Eskolara ikastera, ez zigortuta egotera

- **Erref**: LEZ-062/005
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:08:26. **Bukatu**: 00:09:37

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Lezoko herri-eskolan ikasi zuen, eta beti zigortuta egoten zen, erdaraz ez jakiteagatik. Etxean ez zuen horren berri eman nahi izaten. Hala ere, igarri zioten, eta aita eskolara joan zen irakaslearekin hitz egitera; orduan konpondu zen arazoa.

3. Buruketak eta problemak

- **Erref**: LEZ-062/006
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:09:37. **Bukatu**: 00:11:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Eskola garaiko zigorrak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Buruketak egiteko zigorra jartzen ziotenean, komeriak pasatzen zituen, eta behin egindako bihurrikeria kontatzen du.

4. Txikitako jolasak

- **Erref**: LEZ-062/010
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Txikitan, asko jolasten zuten. Orduko jolasen nondik norakoak aipatzen ditu. Kanikak hainbat materialetakoak izaten ziren: buztinezkoak, harrizkoak, acerozkoak, kristalezkoak... Bakoitzak bere salneurria izaten zuen. Kanikak jolasean irabazteko arauei buruz hitz egiten du.

5. Umetatik futbolean asko ibilitakoa

- **Erref**: LEZ-062/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:18:13. **Bukatu**: 00:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Gaztetan, pilotan eta futbolean asko ibiltzen ziren. Gipuzkoako txapelduna izan zen futbolean, eta Atotxa futbol-zelaian gola sartutakoa da. Orduan jokatutako txapelketei buruz hitz egiten du.

6. Soldadutza Saharan espezialista bezala

- **Erref**: LEZ-062/012
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:19:48. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutza Saharan egin zuen, hasierako 3 hilabeteak Madrilgo El Pardon egin ostean. Madrilen zegoela, morse kodea ikasi zuten; eta Saharan espezialista kategoria izan zuten. Orduko funtzioak aipatzen ditu.

7. Saharan ere futbol taldea antolatu zuen

- **Erref**: LEZ-062/013
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:23:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Saharan, soldadutzan zegoela, futbol-talde bat osatu zuten konpainiako ontsuenen artean. Gogoan du orduko partidu bat. Soldadutza bukatu zuenean, kabo izatera derrigortu zuten; baina, hala ere, berak ez zion futbolean jokatzeari uko egin.

8. Soldadutzan, urte betez etxera etorri gabe

- **Erref**: LEZ-062/014
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:23:14. **Bukatu**: 00:24:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Afrikan soldadutzan egon zen bitartean, ez zen etxera etorri. Ia egunero gutun bat idazten zuen etxekoentzat. Eta behin aitarekin izandako anekdota kontatzen du.

9. Konpainiako 7 euskaldunen azpikeria

- **Erref**: LEZ-062/015
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:24:59. **Bukatu**: 00:27:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutzan, 7 euskaldun zeuden konpainia berean. Behin, etxera itzultzeko baimena lortzearren, Madrilera joan ziren Aste Santuan boluntario, prozesioko irudiak eramateko zereginarekin. Bukaeran, ordea, baimena ukatu zieten euskaldunei.

10. Soldadutzan ikasi zuen gosea pasatzea zer den

- **Erref**: LEZ-062/019
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:31:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Afrikara iritsi eta hurrengo egunean, Mauritaniarekin muga egiten zuen leku batera bidali zuten beste hainbat militarrekin. Han, hiru hilabete eman zituen. Garai hartan, gose handia pasa zuen; eta urarekin komeriak izan zituzten.

11. Muturreko tenperaturak Mauritanian egon zen sasoian

- **Erref**: LEZ-062/020
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:31:47. **Bukatu**: 00:33:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Mauritaniatik gertu pasa zituen 3 hilabete soldadutzan zegoela. Han, muturreko tenperaturak ezagutu zituen, eta hari aurre egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

12. Soldadutzatik Arana S.A. fabrikara bueltan

- **Erref**: LEZ-062/021
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:33:31. **Bukatu**: 00:35:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Gipuzkoako lantegiak

Laburpena:
Soldadutzatik etxera itzuli zenean, lehen aritutako fabrika berean jarraitu zuen lanean, Antxon. Fabrika hura itxi zenean, bere kontura hasi zen lanean, Lezon. Hala, anaiarekin batera, 20 urte inguru eman zituen industria fabrikazioko argiketari lanetan.

13. Gidabaimena "entxufearekin"

- **Erref**: LEZ-062/024
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:38:24. **Bukatu**: 00:40:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Gidabaimena 17 urterekin atera zuen. Aztertzailea aitaren laguna zenez, baimena "entxufearekin" atera zuela aitortzen du.

14. Ezkoingaien txofer

- **Erref**: LEZ-062/025
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:40:30. **Bukatu**: 00:40:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:
Nahiz eta taxiak gidatzeko baimenik ez izan, aitari taxia hartzen zion aldika. Kotxe dotorea zutenez, ezkongaien txofer moduan aritzen zen.

15. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak

- **Erref**: LEZ-062/028
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:43:06. **Bukatu**: 00:44:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai hartan gizonezkoek bakarrik egiten zuten argiketari moduan lan. Emakumeek egin ohi zituzten lanbideak izendatzen ditu: esmalterian, oihalgintzan, manta fabrikan, etab. Gidabaimena ateratzea ere emakumeen artean ez zen ohikoena.

16. Aisialdian dantzara

- **Erref**: LEZ-062/029
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:44:06. **Bukatu**: 00:46:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Aisialdian egiten zutenaz ari da. Oiartzun aldera joaten ziren erromerietara eta baita Errenteriako banda jotzen ikustera. Dantzarako garaian, neskek ez zuten

mutilek bezain libre. Konfesatzera joanda, trikimailuen bidez ateratzen zioten bikarioari zein neska arrimatzen zen gehien.

17. Neskatan ibiltzea ez zen hain erraza

- **Erref**: LEZ-062/030
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:46:44. **Bukatu**: 00:49:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Neska-laguntzen ibiltzen ziren. Andregaia lehenengo aldiz etxera eraman zuenean gertatutako anekdota kontatzen du. Dantza eskatzea eta horrelako kontuez ari da.

18. Asteburuetarako arropa dotoreagoa

- **Erref**: LEZ-062/031
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:49:35. **Bukatu**: 00:52:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Asteburuan bestelako arropak erabiltzen zituzten. Txapela eta gorbata jantzita joaten ziren neskatan. Aitaren traje zaharrari buelta eman eta semearentzako trajea etxean jostea ohikoa zen. Neskame ibiltzen ziren izebek ere, "señoritoak" atzera utzitako arropak ekartzen zizkieten sarri.

19. "Euskara maite dut"

- **Erref**: LEZ-062/036
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:57:02. **Bukatu**: 00:57:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Munduan dauden beste milaka hizkuntzei errespetua die eta gustuko ditu baina, euskara benetan maite duela dio (hunkitu egiten da).

20. Hika, zuka eta berorika

- **Erref**: LEZ-062/037
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:57:41. **Bukatu**: 00:59:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Berorika ez dio sekula inori egin. Hitanoa anai-arrebekin, eta lagun artean erabiltzen zen normalean. Hika egiteak hurbiltasuna adierazten duela iruditzen zaio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com